## MEREZI OTE?

*Hitzak: C. Pavesse/J. Sarrionaindia*
*Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Alberto Rodriguez*

Etxetik ihes egiteko kalea zeharkatzea
mutiko batek bakarrik egin lezake,
baina kaleak egunero ibiltzen dituen
gizon hori, jadanik ez da mutiko bat
eta ez doa etxetik ihes.

Badira udan eguzkia
sartzen ari den plazak
hutsik geratzen direneko arratsalde batzuk,
eta landare alferrekoen etorbidetik
heldu berri den gizon hori
gelditu egin da.

Merezi ote bakarrik egoteak
geroan ere bakarrik egoteko?

Kalerik kale bakarrik
plazak eta kaleak hutsik
gelditzeko esan behar zaio andereren bati
eta norberarekin bizi dadila eskatu behar zaio
zeure buruarekin bestela mintzatuko zara

Merezi ote bakarrik egoteak
geroan ere bakarrik egoteko?

Horregatik batzutan gaueko mozkortia
berriketan hasi ohi da proiektoak adierazten
kalerik kale ibilkiaz ere etxea jadanik
andere horrenean legoke eta mereziko luke.

Merezi ote bakarrik egoteak
geroan ere bakarrik egoteko?

*Atravesar la calle para huir de casa*
*sólo lo puede hacer un muchacho*
*pero el hombre que diariamente anda la calle*
*dejó de ser un muchacho*
*y ya no marcha de casa*

*En verano el ardiente sol*
*calienta las plazas*
*y las tardes se quedan vacías*
*el hombre que camina*
*por las avenidas baldías, se para*

*¿merecerá la pena estar solo*
*para seguir estándolo después?*

*De calle en calle solo,*
*entre plazas y vías vacías*
*le diré a una mujer que se quede*
*le pediré que viva mi compañía*
*o tendré que hablar conmigo mismo*

*¿merecerá la pena estar solo*
*para seguir estándolo después?*

*Por eso, el borracho de la noche*
*al hablar*
*expresa los proyectos de su vida*

*Vagando de calle en calle*
*encuentra la casa de esa mujer*
*y merece la pena*

*¿merecerá la pena estar solo*
*para seguir estándolo después?*

## ENE MAITEA

*Hitzak eta Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Fran Rubio*

Geldo naizenean
goizaren dizdirak
sortzen dizkidan zirrarak
egunsenti gozo fina
ene maitea.

Joanaren joana
bizitzaren bilbea
etengabeko higia
nahiaren osaezina
ene maitea.

Amets baten gosea
izkutuko lorea
zeru urdinaren kantua
mintzo den lur mina
ene maitea.

Izadiaren metafora
anforako bitxia
barne isilan oihartzuna
egiaren ziztada
ene maitea.

Izatearen ardatza
haizearen oldarra
ene kantuen harnasa
zu zara sormena
ene maitea.

Harrizko herri honetan nabil
urre pipirik kausitzen dudan
oihan barreneko izpi artean
eguzki argitan beti maitemin.

*Cuando me siento inerte*
*los destellos de la mañana*
*me imprimen una emoción*
*de dulce y fino amanecer*
*oh amada mía*

*El transcurso de los días*
*en la trama de la vida*
*es movimiento constante*
*de deseos imposibles*
*oh amada mía*

*El ansia de un nuevo sueño*
*una flor escondida*
*un canto de cielo azul*
*es mi tierra que me habla*
*oh amada mía*

*La metáfora de la natura*
*tesoro en una ánfora*
*eco del silencio interior*
*es la inyección de mi verdad*
*oh amada mía*

*Eje de mi ser*
*fuerza del viento*
*aliento de mi canto*
*tú eres mi creación*
*oh amada mía*

*Ando en este pueblo de roca*
*buscando oro entre las piedras*
*entre los rayos que se impregnan en el bosque*
*enamorado bajo la luz del sol*

## IGELA

*Hitzak eta Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Alberto Rodriguez*

Igela dirudigu
uretan murgildurik
saltari.

Igela sentitzen naiz
lainopean blaiturik
limuri.

Krua krua krua
igela dirudit

Bustirik nago barnez
hasperena darit
lazgarri.

Grisaturik zerua
argia dugu neke
mingarri.

Krua krua krua
igela dirudit

Ene herria heze dago
sikatzeko nahiaz
intziri.

Giza eskubide nahiak
lorpenaren lorrak
hain urri.

Krua krua krua
igela dirudit

Beitu beitu kanpora
argitu du eguna
beitu urrunerantz
eguzkia guganantz.

Zerurantz begira nago
eguzkiaren eske
urduri.

Txoriak hegan dabiz
beren hegada alaian
kantari.

Krua krua krua...

*Parecemos ranas*
*zambuyéndonos en el agua*
*saltando*

*Me siento rana*
*mojada bajo la niebla*
*húmeda*

*krua krua krua*
*parezco rana*

*Estoy calada por dentro*
*gimiendo suspiros*
*terribles*

*El cielo está gris*
*la luz es tenue*
*hay dolor*

*krua krua krua*
*parezco rana*

*Mi pueblo está empapado*
*a gritos*
*pide calor*

*Los derechos humanos*
*son difíciles*
*de conquistar*

*krua krua krua*
*parezco rana*

*Mira fuera*
*clarea el día*
*mira lejos*
*el sol se acerca*

*Miro al cielo*
*buscando sol*
*impaciente*

*Los pájaros vuelan*
*cantando*
*en «su vuelo alegre»*

*krua krua krua...*

## BEGIRA ONDO BEGIRA

*Hitzak: Bitoriano Gandiaga*
*Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Alberto Rodriguez*

Begira ondo begira
maitasunaren harira
begira ondo begira
maitasunaren izpiak
bakoitzean berri dira
begira ondo begira
maitasunaren harira.

Begira ondo begira
argiaren jirabira
begira ondo begira
maitasunaren baitan
antza aldatuz ari da
begira ondo begira
argiaren jirabira.

Begira ondo begira
maitasunaren mugida
begira ondo begira
ardatz zoragarria du
betikoa du segida
begira ondo begira
maitasunaren mugida.

*Mira bien mira*
*al hilo del amor*
*mira bien mira*
*las briznas del amor*
*cada vez diferentes*
*mira bien mira*
*al hilo del amor*

*Mira bien mira*
*la luz que gira*
*mira bien mira*
*lo insondable del amor*
*cambia de forma*
*mira bien mira*
*la luz que gira*

*Mira bien mira*
*la movida del amor*
*mira bien mira*
*su eje fascinante*
*por y para siempre*
*mira bien mira*
*la movida del amor*

## EZ ZARA ASKE

*Hitzak: Josean Artze*
*Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Fran Rubio*

Zu ez zara aske
askatasuna dastatzen ere
ez baizara saiatu
ez zara jakintsu
jakitearen bideak
ez bait dituzu urratu.

Eta zuk uste duzu
aske
maitatua zarela
eta zuk uste duzu
aske, jakintsu,
maite duzula.

Zu ez zara maitatua
maitatzea zer den
inoiz jakin ez duzulako,
senditu duzun maitasun deia
zeure buruko gezurrekin
ito duzulako.

Ba ote da gizartearen etxean
ezer tamalgarriagorik
zenbait zoriontasun galtzen ari den
ez jakitea baino?

*Tú no eres libre*
*porque no has intentado*
*probar la libertad*

*Tú no eres sabio*
*porque no has rasgado*
*los caminos de la sabiduría*

*Y tú dices que eres*
*Libre*
*que eres amado*
*y tú dices que eres*
*libre, sabio*
*y que amas*

*Tú no eres amado*
*porque no has palpado*
*el amor*

*Al surgirte el amor*
*no le dejas crecer*
*en tus engaños*

*¿En la casa de la humanidad*
*hay algo tan penoso*
*como la inmensa felicidad*
*que se pierde en ella?*

## TXIRI TXIRI

*Herrikoia/Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Alberto Rodriguez*

Obabatxoa lo-lorina
hauxe da nire pospolina
nire pospolina da gaitea
neure seme lazten maitea.
Txiri txiri
oñe oñe
aita legez
ama legez.

Seme honen aita frailea da ta
ama beata santea
begi ederrokaz ama dirudi
hanka okerrakaz frailea.

Txiri txiri...

Obabatxoa txingorri gorri
ez egin lorik basoan
azagariak jango zaitu ta
olloa zarelakoan.

Txiri txiri...
Obabatxoa lo ta lolo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun orduen baten
biok egingo dogu lo.
Txiri txiri...
Obabatxoa lo balde
ardiok itxi baleide
ardiak dira hiru mile
banabilde bile bile.

*Obabatxoa duerme*
*éste es mi retoño*
*mi mocito es una música*
*mi querido hijito*
*Suave, suave*
*tranquilo, tranquilo*
*como tu padre*
*como tu madre*
*El padre de este niñito es fraile*
*la madre una santa beata*
*sus bellos ojos se parecen a la madre*
*las torcidas piernas a su padre*
*Suave, suave...*
*Niñito, hormiguita roja*
*no te duermas en el monte*
*pues te comería el zorro*
*creyéndote una gallina*
*Suave, suave...*
*Obabatxoa duerme*
*tú ahora, yo luego*
*a la hora que tú quieras*
*dormiremos los dos*
*Suave, suave...*
*Obabatxoa duerme*
*si te dejan las pulgas*
*las pulgas son unas tres mil*
*aquí estoy buscándolas*
*Suave, suave...*

**KIKI KOKOROKA**

*Hitzak eta Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Alberto Rodriguez*

Arrano beltza ez da saldu nahi
miseria batengatik,
otso izkutua ez da makurtzen
ezerez hutsarengatik.

Itxaropendun otso librea
ezin da domestikatu,
sugeak saltoz erasotzen du
guzien madarikatu.

Elefanteak milimetroan bihotza nahi du koka
oilasko ta oilanda kiki-kokoroka arraultza da loka.

Azeri zaharra mahatsa ezin hartuz
«helge da» esanez amorra,
sasi profetok dorre gainetik
herri fedea izorra.

Egazti gaisoak kabietan
kulunkatzen hasi dira,
hegada libre baten beldurrez
abiatuz hilobira.
Elefanteak...
Armiarmaren sare grisetan
gizona korapilatu,
egonezienen etsipen luzez
irtera ez du bilatu.

Zezen gorriak adarrak ditu
adarrak punta zorrotzez,
zuetariko inork ez baldin badu
mila zorion bihotzez.
Elefanteak...

*El águila negra*
*no se vende por una miseria*
*el lobo fugitivo*
*no se doblega ante nada*
*No hay quien domestique*
*al lobo libre y esperanzado*
*la culebra en su danza*
*ataca enrabietando*
*El elefante se ha enamorado*
*del milímetro*
*los pollos y las pollas cacarean*
*el huevo se está incubando*
*El viejo zorro no llega a la vid*
*y afirma que está verde*
*los seudo-profetas desde torres de marfil*
*han quebrado la fe de su pueblo*
*Las aves enfermas*
*se mecen en su nidos*
*así construyen sus tumbas*
*por miedo al vuelo libre*
*El hombre se enreda*
*en las grises redes de la araña*
*no encuentra salida*
*a su desesperada inquietud*
*El toro tiene cuernos*
*de puntas afiladas*
*feliz aquél*
*que no las tiene*

**EGUNEN BATEAN**

*Hitzak: C. Pauesse/J. Sarrionaindia*
*Musika: Alberto Rodriguez*

Seaska pobrean sortu ziran guztiak
pobrea jarri behar dala dakite
Egun on batean urrezko alkian
egun hori San Sekulaerezen eguna da.
San Sekulaerezen egun hortan
urrezko alkian jarriko dala.
Borondateak bere prezioa izango du
gaiztakeria lepoa kostatuko da
eta meritu ta irabazi guztiak
ogiz eta gatzez orduan trukatuko dira.
San Sekulaerezen egun hortan
ogia eta gatza trukatuako dira.
Zeruan belarrak haziko dira ugari
harriak errekaz gain izango egun hortan
eta gizakia guztiz ona izango da
mundua paradisua atsegina.
San Sekulaerezen egun hortan
mundua paradisua izango da.
Egun hortan ni abiadorea izango naiz
zu egun hortan jenerala izango zara
lanik ez duenak zeregina izango du
ta emakume pobreak atseden izango du.
San Sekulaerezen egun hortan
emakume, zuk deskantsatuko duzu.
Baina luzea da gure itxarotea
beraz guzti hau egun baten izango da
bihar goizean goiztiri argian
oilarra kantuan hasi baino lehentxoagoan.
San Sekulaerezen egun hortan
oilarra kantuan hasi baino lehen.

*Los que nacieron en cuna pobre*
*saben que seguirán siendo pobres*
*pero un día tendrán cuna de oro*
*ese día, el día de San Sekula*
*ese día de San Sekula*
*dormirán en cuna de oro*
*La voluntad tendrá un precio*
*la maldad costará la vida*
*los méritos y ganancias*
*se cambiarán por pan y sal*
*ese día de San Sekula*
*se cambiarán por pan y sal*
*Crecerán las hierbas en el cielo*
*las piedras brotarán del río*
*en el hombre habrá bondad*
*y el mundo será un paraíso*
*ese día de San Sekula*
*el mundo será un paraíso*
*Ese día yo seré aviador*
*y tú serás general*
*los parados tendrán trabajo*
*y la mujer pobre descansará*
*ese día de San Sekula*
*mujer, tú descansarás*
*Será larga nuestra espera*
*pero todo esto será*
*mañana a la luz del nuevo día*
*antes que cante el gallo*
*ese día de San Sekula*
*antes que cante el gallo*

**ALEA JACTA EST**

*Hitzak eta Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketak: Fran Rubio*

Badut mila zeregin egiteko
ezer ez duena ez dabil ondo
desiratzen dudan guztia
eskuratzeko errez balego?
Beti ere zerbaiten faltan nago
lortzen dudanarekin ez dut nahiko
ez diot beldurrik geroari
zoria jada ezarria dago.
Alea jacta est
Uda gau bateko ene ametsak
haize berri batek daramatza
bizirik ez dagoen bihotzak
ezin idoro esperantza.
Zenbat helburu ote ditut jarri
betezinezko askatasun egarriz
nahi ta ezinaren mingaitzez
ekin beharra beti berriz.
Alea jacta est
Ibili ondoren atsedena
garbitu da kontraesana
dena itzultzen da aztarnara
geurez garena izatera.
Desordenatua da ene gela
atontzeko ere hain naiz epela
nahi bazenu pasa zintezke
hatoz anarkia erreinura.
Alea jacta est.
A divinis ad libitum
Ad litem ad literam
Alea jacta est
Ad honores ad gloriam
ad valorem ad vitam aeternam
Alea jacta est
Ab initio ab irato
ab origine ab aeterno
acta est fabula
Ante diem ante meridiem
a priori a posteriori
acta est fabula.

*Tengo muchas cosas que hacer*
*quien no las tenga no anda bien*
*si todo lo que deseo*
*fuera fácil de conseguir*
*Siempre me falta algo*
*y lo que logro no me satisface*
*no tengo miedo al futuro*
*porque la suerte está echada*
*ALEA JACTA EST*
*Los sueños de una noche de verano*
*los lleva un viento nuevo*
*el corazón que no está vivo*
*no encontrará la esperanza*
*Cuantos objetivos voy marcando*
*en sed de libertad insaciable*
*volviendo siempre adelante*
*un querer y un no poder amargo*
*ALEA JACTA EST*
*Después de andar viene el descanso*
*se aclara la contradicción*
*todo vuelve al principio*
*a lo que somos*
*Mi habitación está desordenada*
*soy débil para organizarla*
*puedes pasar si quieres*
*entra en el reino de la anarquía*
*ALEA JACTA EST*

**HERIOTZ MIN**

*Hitzak: K. Santesteban/G. Mendibil*
*Musika: Gontzal Mendibil*
*Moldaketa: Alberto Rodriguez*

Antxeten hegadak
damaio negar haizeari!
Aparrezko zotina
dario uhinari
Neguminezko bihotz puskatuan
ilun-gogozko etsipenean.
Antxeten hegadak
damaio auspo negarrari!
Lekeitioko kai gainetan
kresalezko hozkirria senti dugu
geure barnerako aizto gisa
zorion urragarri
herio-itzal.
Itxaropenezko damuz
bizitzan bizi zinen
bizi
Heriotzan bizi izango zara
SANTI!
Antxeten hegadak
damaio bizitza zure heriotzari!
putreen olatuek erain zaituzte
Herriaren olatu nekaezinek
beren kolko beroskan ATOTSI
gure branka
hilenti hilezkor.
Agur eta ohore
Kapitain zaharra
itsasontzia uretan da
marinelak prest dira.

*El vuelo de las gaviotas*
*lleva lágrimas al viento*
*sollozos de espuma*
*manan de las olas*

*En un corazón roto*
*de frío invernal*
*el espíritu decaído subyace*

*El vuelo de las gaviotas*
*conmueve nuestro lloro*
*estremece el frío salitre*
*del puerto de Lekeitio*
*y en nuestras entrañas*
*como filo desgarrador*
*penetra la sombra de la muerte*

*Viviste la vida*
*alentando esperanza*
*vives la muerte*
*SANTI*

*El vuelo de las gaviotas*
*llena de vida tu muerte*
*los buitres te esparcen por las olas*
*las olas incansables de tu pueblo*
*en su seno calenturiento*
*serás tizón inmortal*
*para siempre AITONA*

*Saludos y honores*
*viejo capitán*
*los marineros están prestos*
*el barco va a zarpar*